



# COVID-19 MURRIZKETAK

## Pandemia aurreko ordutegiak eta neurketak berreskuratzea

Ostiraletik aurrera, urriak 1, Foru Komunitatean koronabirusaren aurretiko **edukiera eta ordutegiak** berreskuratuko dira. Hala bertan behera geratu dira Nafarroan indarrean zeuden neurriak, **OINARRIZKOAK** izan ezik:

- Beharrezkoak **ez** diren **kontaktuak** murriztea, ahal den neurrian, eta jende pilaketak prebenitzea
- Pertsonen arteko **1,5 metroko segurtasun distantzia** mantentzea.
- **Barruko espazioetan maskara derrigorrez** erabiltzea eta aire zabaleko espazioetan 1,5 metroko tartea mantendu ezin denean.
- **Eskuak behar bezala garbitzea** xaboiarekin edo gel hidroalkoholdunarekin.
- **Aire zabaleko** jarduerak lehenestea
- Lokalak eta barruko **espazioak behar bezala aireztatzea** eta CO2 neurgailuak instalatzea espazio horietako airearen kalitatea neurtze aldera.

**COVID-19** duten pertsonen **derrigorrezko bakartzea** mantentzen da.

## Maskara erabiltzea

**i** Ez da beharrezkoa maskararik eramatea baldin eta bizikide ez direnen artean gutxienez 1,5 metroko segurtasun tartea badago leku irekietan.



**Jende askoko ekitaldietan**, maskara eraman behar da baldin eta parte-hartzaileek, zutik edo eserita, ezin badute 1,5 metroko tartea gorde, bizikide taldeak izan ezik.

### **Maskara beharrezkoa da**

- Bai erabilera publikoko espazio itxietan, bai jendearentzat irekitako espazio itxietan.

- Garraio publikoan eta pribatuan bizikide ez direnen artean


### **Ez da beharrezkoa**

Adinekoei edo dibertsitate funtzionala duten pertsoneri laguntzeko erakundeen erabiltzaileentzat, ezta oinarrizko langileen egoitza kolektiboetan ere, %80k baino gehiagok txertoaren bi dosiak baditu. Nahitaezkoa izanen da zentroko langileentzat eta bisitariarentzat.

## **Beste neurri batzuk**

- Indarrean jarraitzen du bide publikoan edo aire zabaleko gunetan **erretzeko debekuak**, baldin eta ezin bada errespetatu **gutxienez 2 metroko** tartea beste pertsona batzuekiko.
- Bide publikoan, parkeetan edo plazetan **ere ezin da botelioirik egin**.

En Etxauri, a 30 de septiembre de 2021

  
Idoia Aritzala Etxarren  
Alcaldesa de Etxauri

